

egitasmoaren izenburua:

EUSKARA MAITASUNETIK, mesedez

(conexiones improbables-era aurkeztua, 2012an)

SARRERAKOA:

Zerk merezi du euskaran? galderarekin hasi nahi dut egitasmo hau. Maiz kosta ahala kosta euskara aurrera ateratzea izan ohi da helburu, eta bide horrek zenbat sofrikario sortzen dituen aintzat hartu beharko genuke beharbada.

‘Gazteek euren jarduera informaletan euskara erabil dezaten gailuak pentsatu eta garatzea’ galdegiten zuten Uribe-Kostako Udalek, eta galdera bera hamaikagarren aldiz aditzen nuela irudituz, lanean jarri nintzen. Ipar Uribeko Euskara Zerbitzu edota taldeek egindako lanak gainbegiratzeko ibilita, hainbat ekimenei buruzko jakinmina piztu zitzaidan, eta duten balioa aitortzen diet, hala nola Sarea Josten, UK aldizkaria, Zabalduraren Atea, Etorritik, Euskaraz Atseginez, Txilinbuelta... Nere proposamen *dibergente, disonante eta gertagaitzek* beren balioa erantsi nahi liekete han eta hemen egindakoei eta egingo direnei, errespetu osoz, atsegin osoz.

Baina euskara aurrera ateratzeko ahaleginak kontaezinak izanik, maiz ez dira ondo neurtzen ahalegin horiek eragiten dituzten pairamenak, eta horren ondorioak euskara berarentzat kaltegarriak izan daitezkeela iruditzen zait. Gazteen kasua bereziki argigarria da zentzu honetan, euren euskararekiko aldentze orokorra (gorrotora heltzen dena hainbat kasutan) ezin baita kasuala izan. Gazteen euskararen erabilpena sustatzea ez dela egun batetik besterako kontua iritzi dut, eta gailu magikorik ezin dela sortu bat batean. Han-hemenka galdetutakoan bataila galdua dela sentiarazi didate. Gogoeta aproposa egin behar da edozein kanpaina hasi baino lehen, porrot egin duten eskema berberak errepikatu baino lehen.

Oinarri-oinarriko ikuspegi aldaketa planteatu nahi dut hemen, zenbait zama arindu eta euskara maitasunez eta izaera ludiko batez jantzi behar dugun ikasketa eta jarduna izan beharko lukeela azpimarratuz. Behar moralaz, militantzia ezinbestekoaz eta konplexu arraroez gaindi. Epairik gabe, errudun sentipenik gabe, euskara bere sakonean ulertuz, solas-jolas hutsean oinarrituz, gazteen nahiak adituz, gizarte sektore ezberdinekin batera lan eginez ...eta batez ere euskara bitarteko izan dadila bideratuz, eta inolaz ere berriz helburu, inposaketa, meatxu.

Ausart jokatzeko ordua da!

ZERGATIK EZ DUTE (guk bezala) EUSKARA MAITE?:

Norbaiti gai polemikoak irudituko zaizkio honako hauek baina, inor mindu nahi gabe eta iritziak iritzi, kontzeptuak nahastu samar daudela irudituta eta zenbait zama arindu beharrari funtsezko deritzot beste ezertan hasi aurretik.

1) ***Euskara hizkuntza inposatua da:*** “Eskolan errieta egiten didate gaztelaniaz egiteagatik” edo “Zigortuta nago euskaraz egin behar delako” bezalako sentipenek bere aisialdian euskaratik urruntzera daramate pertsona, edozein pertsona; hala nola Franco garaietan gaztelania eta España bera biziki gorrotatzera iritsi ziren hainbat eta hainbat euskaldun eta euskal herritar. Inposaketa bati beste inposaketa batekin egin nahi izan diogu aurre nolabait. Eraso bati beste eraso batekin. Ez dut fede txarrez adierazi nahi baina gaztelania inposatzeko “Una, grande y libre” haren pean egin zenaren estrategia berbera erabili nahi izan da euskara bultzatzeko: gaztelania debekatzea ikastetxe barruan (eta ingelesez mintzatuko balira berdin jokatuko genuke?). Tamalez, neronek nahi baino arruntagoa da ikastetxeetan adibidez 6 urteko haurrak zigortzea gaztelaniaz egiteagatik. Benetan uste dute irakasle horiek beren jarrera onuragarria dela euskararentzat? (eta zinez fede onez egindako gauzak direla pentsatu nahi dut!). Jazarpen sentipen honek, ez gazteak baizik 7 eta 10 urte bitarteko haurrak jada, beren jarduera informalean gaztelania buru-belarri erabiltzera bultzatzen ditu. Akats handia da ere, ene ustez, eskola urte guztietan “HEMEN ERE EUSKARAZ” bezalako esloganpean biziaraztea haurrak, eta panorama hori dute edozein ikastetxetako haurrek eskolako espazio guztietan, naturaltasun handiz, normala da. Haur eta gazteen izaera errebeldeak, euren autonomia gurak, ezinbestean horren aurka jo behar... “El euskera es un puto asco” esan zidan Leioako gazte sano batek, kontu hauengatik.

2) ***Irakaskuntza arautuko hizkuntza da,*** baina ez du balio egunerokoan. XXI. mendean bizimodu modernoak euskaraz egin daitekeela ondo dakigu batzuek, baina hala ere egia da hainbat gazterentzat euskararen gunea ez eskola bera baizik eta huts-hutsean maisuaren jarduna dela. Eskolatan egunerokoan ezartzen diren harreman bertikalak egonda (ezagutzaren edota araudien norabideari buruz ari garela), erreferentzia linguistiko nagusia irakasle hori izatea ez dirudi xarma handiko tantoa. Ez dezagun ahaztu zein punturaino dauden gaur egun eskolak gizartetik banatuta, eta zein zerikusi gutxi duten orohar eskolako edukiek gazteen egunerokotasunarekin edota haien interesa pizten duten gaiekin. Eskola=Beharra eta Euskaraz egiteko Behar hori errazegi lotzen dituzte haur eta gazteek.

3) **Gal ez dadin erabili eta bultzatu behar da.** Behar moral hori zama bezala bizitzera kondenatuta gaude euskaldunok. Halako zamak arindu beharko lirateke bizimodu osasungarria izateko. Honi atxekitako biktimismoari ere ez deritzot oso lagun ona euskalduntze prozesu edo nahian.

4) **Euskal Identitatearen funtsezko elementua da euskara.** Begiratoki erratua da hori. Euskal identitaterik ez da existitzen (***ikus** bidalitako dokumentazio gehigarria: “Anti-Identidadea: identidadearen kontrako bizipen bat (EUSKERA)”, 2005. urtean Likiniano elkartearekin batera argitaratutako libeloa). Euskara euskal identitate horri loturiko osagai funtsezkoa ei da. Gai horri buruzko militantzia beharrezkoa ei da. Ezin dut bistatik kendu honakoa: (edozein gairi buruzko) militante denarentzat behar bat da militantzia, baina militante ez denarentzat maiz jokaera erridikulua dauka militanteak, edota ohartu gabeko pisu astuna darama bizkarrean, edota bizitza bestelako (eta besteen) ikuspegitik ikusten uzten ez dion benda da militantzia hori. Kaleetan kartelak jartzeko zilegi deritzot militantziari, baina hizkuntza bat ezin da militantziaz mintzatu. Ezin dezakegu euskaldun bakoitzarengan militantzia hori espero, horrek izugarri murrizten baitu mintzakide posibleen kopurua. Abertzaletasunarekin edo politikarekin lotzea ez du inoiz onerako izango euskarak, jakina.

5) **Euskara ez da gramatika.** Egitasmo hau aurkeztu aurretik Ipar Uribeko hainbat gazterekin mintzatzen aritu naiz gai hauei buruz. Euskara ikasgela barruan gorrotatzera ailegatu direla kontatu didate: “Zertarako balio dute ‘zatzaizkidate’ horiek? Ezertarako!”. Horrela, euskarak oso hizkuntza zaila dirudi, egitura korapilatu multzo batekin lotzen dute, eta inola ere ez **lagunarteko hizkerarako baliagarri den hizkuntza xamur eta jostakari** horrekin.

6) **Ez dakit euskaraz ongi.** Gramatika asko ikasita ere, jendeari ikaragarri kostatzen zaio lotsarik gabe euskaraz mintzatzeko pausu txiki hori /jauzi handi hori ematea. Ikaragarri. Epaituak sentitzen dira zeharo. Zergatik ausartzen gara inolako beldurrik gabe ingelesa, frantsesa edo beste edozein hizkuntza txapurreatzera, ...eta euskararekin ez? Zein “excelentia” dago euskara jatorraren atzean? Zergatik dago hainbeste eta hainbeste euskaldunberri akonplejatu? Zergatik sentitzen dira hain trakets euskaldun peto-peto ez direnak? Hor ere zerbait gertatzen da...

7) **Euskaldun-borono.** Ezin dugu albo batera utzi ere beste aldea, alegia, betidanik ikastetxe askotan euskaldunzaharrek ere ‘baserritar’ edo ‘borono’ konplexua jasan behar izan dutela eta sentipen honek ere gaur egun dirauela, halaber euskara iraganarekin eta gaztelania zibilizazioarekin-berritasunarekin lotuko lituzkeen pentsamendu hori tamalez hortxe dago oraindik.

ERALDAKETARAKO GILTZA BATZUK:

1) **Maitasunetik ikasi eta erabili.** Maite dugun hura ezin inolaz ere gu maitatzera behartu, ezin inolaz ere bortxatu, ezin nahi ez duen hura egitera behartu. Familiarteak da haurtzaroan maitasunaren hiri nagusia. Lagunartea gaztaroan.

2) **Erabilgarria dela erakutsi.** Beldurrak galtzeko estrategiak diseinatu behar dira. Euskara teknikoak oso presentzia handia dauka aisialdian euskara erabiltzen ez duen jendearen begietan. Zentzu honetan, iruditzen zait dokumentu, txosten eta araudi instituzional elebidun guzti horietako euskara ez dela benetan erabilgarria nahiz eta politikoki zuzena izan: ziur nago euskaldunon %99 luzek gaztelaniazko bertsioan askoz hobeto ulertzen dugula. Zentzu horretan, merezi du edozelako foileto etabarrak elebietan daudenean, den-dena bi hizkuntzatan jarri beharrean, informazio batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz plazaratzea. Baina ez gara honetaz ari zehazki. **“Egunerokotasunean, euskara guai da, guei”** (eta batzuk ez dira oraindik konturatu). Eta hori nola egiten da? Bada, gozamenezko gauzak egiten ditugun bitartean erabiliz. Lotsarik gabe.

3) **Euskara informalaren iturritik edan.** Jarduera informaletarako erabili nahi den hizkuntza horrek informala izan behar du ezinbestean. Sinestarazi digute (ez dakit nork, ez dakit nola, ez dakit noiz) euskara huts, zuzen eta garbian mintzatu behar dugula, ordea hizkuntza batek zikintzeko arazorik ez duela izan behar pentsatu izan dut beti. Hizkuntzak bizia izan nahi badu kutsagarri eta kutsakor izan behar du uneoro. Hizkuntza batetik bestera saltoka dabilen solasa ez da sakrilejioa, komunikazio bizia baizik, munduko beste hizkuntzekin etengabe egiten dena. Hizkera elebiduna euskaratik gaztelaniara eta buelta, saltoka ibiliz, zilegi eta dibertigarria da, tartean frantses edo ingelesetik lapurtutako hizkera tartekatzea... Jergak sortzea solas-jolas dibertigarria da munduko edozein gazterentzat, baita sonoridadeekin jolastea, prosodia egitea... Horrela bai, horrela hizkuntza informala, atsegina, zedarririk gabea, aztertu gabeko eremua, esplorazio lurraldea...

4) **Euskarak bere baitan daukan filosofia benetan aintzat hartu** edozein kanpaina edo jarduera antolatzeke orduan. Zertaz ari gara ‘gizarteari ongizatea ekartzen dion euskararen aberastasun sinbolikoaz’ ari garenean? Lehenik eta behin aberastasun sinboliko eta izpiritual hori lekutu beharko genuke. (***irakurri** berriz, mesedez, “Anti-Identidadea” lehen aipatu libeloa) Euskarak hamaika ditu, baina ez luzatzearren adibide bakar bat jarriko dut: MAITEMINDU euskarazko hitza, duela gutxi

halako hautaketa publiko bat egin zela baliatuz esango dut: niretzat euskarazko hitzik politena, hitz berean biltzen baititu MAITATU eta MINDU, txanpon beraren alde biak osatuz, (yin eta yang bezala) bata gabe bestea ezinezko da eta. Bizitza ulertzeko giltza paregabea... Nik argi daukat: "Euskara hizkuntza *cool* bat da".

5) **Euskarazko hezkuntza eskaintzen duten eskualdeko ikastetxe guztiekin batera lan egin** beharra azpimarratu nahi dut (eta goitik dauden instituzioekin ere, egunen batean...), aipatu baloreen gainean. Uste hau gaur egun nahikoa hedatua dago: 16tik 25 urtera bitarteko gazteak ia ia borroka galdua dira euskalduntze gai hauetan aritzeko, euskararen ukatzea beren gorputz eta gogoetan aurretik ereinda dagoelako. Bada, zerbait aldatu beharko dugu "hor", baldin eta hemendik 2, 7 edo 19 urtera gazteek euskara maitatzerik nahi badugu.

6) **Euskara irakasleekin batera lan egin.** Eskola guztietan irakaslerik zorrotzenak euskara irakasleak izan dituztela esan didate hainbat eta hainbat gaztek, eta hori dela kausa euskara bera gorrotatzera iritsi dira horietako asko. 'A ze pitokeria' pentsatuko du norbaitek. Ez dut uste, euskara insanoki erakusten baita askotan, eta horrek asko - guztiz!- eragiten du gazteen pertzepzioa. Gazteek oihuka eskatzen dute: "**gramatika gutxiago, berbeta gehiago!**". Gramatika, araudi eta inposaketen artean euskararekiko (eta edozerrekiko) gogo guztia pikutara doalakoan nago. Bide batez, hitzaldi abertzaleak mesedez eskolatik kanpo emateko ere esango nioke baten bati, oso erraz nahasten baita dena (: hau anekdotikoa da, edo hala dirudi).

ETA HORI NOLA EGITEN DA?

Egitasmo honen egite-bilakaerak zaindu beharreko bi alde argi eta garbi bereizi dizkit. Esan nezake bien ardatza halako zerbait izan daitekeela: “Ez matxakatu gehiago, euskararen inguruko tentsioa baretu, lasaitasunez irten behar du, inolaz ere bortxaz”. Beraz, eta aintzat hartu beharreko pertsonak gazteak eta haurrak direla beti ere gogotik kendu gabe,

BI ESTRATEGIA:

1) ORAINALDIKOA:

Euskara bitarteko izan dadila, eta ez helburu. Hizkuntza batek hala behar du izan... Helburua: gogoaz piztea (ez beharra). Nahi ez duenak ez dezala bere burua behartua sentitu euskaraz egitera, baina zer galtzen duen... Irteera bakarra agertzen zait: **gazteentzako ekintza benetan erakargarriak pentsatu eta antolatu behar dira euskeraz.**

Eta nola? Zer dute gustoko nerabeek? **Zer eskatzen du gaztherriak?** Tira... galde diezaiegun gazteei. Aditu dezagun beraiek esateko dutena, aintzat hartuak senti daitezela, gizarte honetatik aparte samar sentitzen dira eta, gaurko gazteak. Galdetu gazteei zer nolako jarduerak edota instalazioak nahi lituzketen beren herrian, eta eskatzen duten huraxe euskara hutsean eskaini. Gazteei gisa honetako galderak egitea proposatzen ari naiz:

- Zer interesatzen zaizu?
- Zeri buruz jakin nahiko zenuke gehiago?
- Zer egitea gustatuko litzaizuke zure herrian?
 - Non?
 - Nola?
 - Norekin?
- Zer da zure herrian gehien gustatzen zaizuna?
- Zer da zure herrian gutxien gustatzen zaizuna?
- Zer gustatuko litzaizuke zure herrian egitea, gaur egun ezin egin duzuna?

...Guk pentsatu genezake zer erantzungo luketen. Esan genezake adibidez “Gazteen behar nagusia hitzegiteko eta harremanak eraikitze beharra da, eta horretarako espazioak behar dituzte”; edo esan genezake “Autonomia beharra” dute nagusiki, eta

kontzeptu horren gainean lan egin behar dugu; esan genezake ere “Sexualitatea da gazteek buru-gorputzean daukaten bakarra, hortik joko dugu”.

Pentsatu dezakegu haien interesa internet eta sare sozialetan dagoela, ikusentzunezkoetan, musikan, diseinuan, naturan... Eta hortik jo jarduerak antolatzerakoan. Eta ederra den zeozer asma dezakegu uste horietatik abiatuta. Gizarte Sareak erabiliz zeozer egin genezake, adibidez. Ziur nago ideia onak soberan izango genituzkeela. Baina gure galderei erantzunez ariko ginateke orduan, ez beraienei. Haiei aditu behar diegu zer nahi duten. Haiekin batera prestatu behar dira jarduerak, espazioak, denborak.

Eskolatik kanpo gertatu behar du honek. Eta mesedez ez erabili gehiegi ‘EUSKARA’ hitza kanpaina edota jarduera antolatu eta iragartzeko orduan. Are gehiago: gazteekin ekitaldi, jarduera etabarrak antolatzerakoan, ez eman inolaz ere “Euskaraz!” kontsigna behin eta berriz, idatziz eta ahoz. Guk euskaraz egite hutsarekin baliatu, eta kutsatuko dira besteak kutsatu behar badute.

2) **ETORKIZUNEKOA (ORAINALDIKOA DENA):**

Benetan euskararen eta euskarazko irakaskuntza errotik birplanteatu beharko da egunen batean, edo pittinka-pittinka, batez ere giroari dagokionean esango nuke. Presioa arindu behar da, eskolaurretik unibertsitateraino. “*Hizkuntza bat hitzegiten ez duenak...*” eta antzekoez ari naiz, nonbaitetik hastekotan.

Lan eskerga hau ikastetxez-ikastetxe, ia irakaslez-irakasle egin beharko litzateke, ondo egitekotan. Guk gutxienez gogoeta edo sentibilizazio kanpainen bitartez egin dezakegu, mezu berri askatzaileak bilatuz: “Aurten, ezberdin”; edo “Hik ere *cool* izan nahi dun?”, edo “Gramatika gutxiago, berbeta gehiago”; edo “Nik informala, zuk zergatik ez?” ...Umorea ere erabiltzea gustagarri nuke... Umorea beti.

...Nork esan ote zuen euskara (hain) gauza serioa denik?

Buelta asko eman behar zaizkio gai honi, baina iparorratza aldatuta. Berbalagunak eta amodio euskaldunak eskola barruan egin behar dira, ezin du izan dena gramatika eta militantzia, azterketa zorrotzak eta lelo euskaltzaleak pasiloetan, penkoak eta herriminak. Zinez bide erratua da hori. Sendagaitz samarra egiten duen kaltea.

Bila ditzagun bide berriak, jada ibilitakoek kale egin dutelako bada behintzat.

EGUTEGI ETA ANTOLAKUNTZA:

Egitasmo honetan azaldutako iritzi eta lan ildoen gainean eztabaidatu eta gailu berriak sortzeko elkarrekin lan egitea proposatzen dut adostutako epean.

	-Irizpideak adostu eta ezagutzak partekatu. -Gazteen beharrak ezagutzeko gailuak asmatu. -Ikastetxeetan egin beharreko kanpainak pentsatu, antolatu eta martxan jarri.
	-Gazteak euren aisialdian bilatu eta beren behar eta gogoei buruz galdetu. -Gazteei aisialdi proposamenen bat eskaini (?)
	-Ikastetxeetako kanpainak abiatu: "Aurten, ezberdin". -Gazteekin elkarlanean jarraitu. -Konexio Gertagaitzen OpenLab-a.
	-Ikastetxeen lanaren jarraipena. -Eskolaz kanpoko jarduerak martxan jarri. -Gazteen lanaren jarraipena. -Egitasmoaren jarraipena epe luzera antolatu.

Udalen Euskara batzordeek sustatu bai, baina egitasmo honetan gizarte talde anitzekin batera lan egin beharko genukeela iruditzen zait. Aukera batzuk apuntatzen hasi naiz:

-Udal ezberdinen Ingurumen, Kultura eta Gazteria, Hirigintza, Gizarte Zerbitzuak edota Kirol sailekin, besteak beste.

-Eskualdeko ikastetxe guztiekin, EHU barne.

-Euskara elkarteekin eta haietatik eratorritako komunikabideekin.

-Gazte asanbladekin, aisialdi taldeekin

-Gazteekin lan egiten duten enpresa eta taldeekin.

-Orotariko zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten hiritar eta erakundeekin.

NERE IBILBIDEA:

1973an jaioa. Guraso erdaldunak, txikitatik ikastolara, haurtzaroan giro euskaldunean hazia, Oñatin eta Donostian. Elebidun peto-petoa. Ikasketa guztiak euskaraz eginikoa COU ikasturtea izan ezik, amarekin bizitzera urtebetez Gasteiza joana han ez baitzegoen 1990ean euskaraz egiterik. Gurasoak irakasleak ditut, nere nerabezaroan zehar ikasi zuten behingoz euskara, borroka handien ostean. Gaur aitarekin euskeraz eta amarekin gaztelaniaz egiten dut. Ni neu EGAduna naiz, Oso Ongi kalifikazioarekin. Kazetaritza ikasketak Leioan egin nituen. Donostiako Bagera elkarteko kide izan eta Irutxulo aldizkaria sortu zuen lantaldean ibili nintzen aspaldi samar, gerora Euskaldunon Egunkarian eta Argian kazetari lanetan aritu nintzen zenbait urtez. Bien bitartean, antzerki munduan gidoilari eta zuzendari ibili naiz azken 15 urteetan, euskaraz zein gaztelaniaz (eta batetik besterako egokitzapen libreak egiten). Hezkuntzan aritzen naiz ere, ikastetxeetan eskolaz kanpoko tailerrak eginez duela 7 urte. Leioako Solasgune enpresan euskarazko testu eta itzulpen ia guztiak idazten ditut duela 2 urte, eta gaur egun webgunea eguneratzen jarduten dut. Duela 10 urte neskalagun Sevillarra dut. Harat-honat ibili ostean honat egin genuen. Euskaltegian ibili zen 'trinko' batean hilabete gutxiz, irakasle-politikari batekin. Arazoak ditu hemen lana aurkitzen euskararik ez dakielako (nahiz eta bere lanean oso ona den). 3 urteko alaba bat dugu, Nora izenekoa, elebiduna. Amorebietan bizi gara (bai izen itsusia 'Zornotza'! 'Amore bi eta' ez al da euskaldun eta eder-ederra?-barka azken atrebentzia hau baina ez ditut etimologiak aztertu esan aurretik, intuizio hutsez jokatu dut).